

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Ostirala, 2010eko abenduaren 17a. VIII. urtea. 2.142. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info



→ **Tolosako «urteko kirolari onenak» omendu ditu udalak.** Herriko eragile desberdinek aukeratu dituzte omenduak eta etorkizuneko kirolariak ere kontuan hartu dituzte; Kirol Galan banatu dituzte sariak eta Edurne Pasaban eta Xabi Alonso izan dira aipamen nagusia jaso dutenak. **2**

Euskal presoen egoerari «nahikoa da» esateko eskaera egin dute

Hileko azken ostiraletako elkarretaratzeetara eta abenduaren 31ko manifestaziora joateko eskatu du Aiztondo bailarako Etxerategi **4**

Postu ugari jarriko dituzte Tolosan Gabonetako Azoka Berezian

Ohiturari jarraituz produktu bereziak eskuratu ahal izango dira Tolosako puntu desberdinetan; larunbateroko azoka ere egongo da **2**

Zigor Etxebarria Dokumental egilea

«Mundu guztiko etorkinei egindako omenaldia ere bada gure lana»

‘Amerikanuak’ dokumentala ikusteko aukera egongo da bihar Leidor aretoan, 19:30ean **6**

ESTETIKA ETA KOSMETIKA ZENTROA
KONSULTA MEDIKU-ESTETIKOA

Maité

Leitza kalea z/g • Tolosa • 943 67 03 38

Gabon hauetan **oparitu**
edertasuna eta ongizatea
aurpegiko eta gorputzeko
tratamendu bonuekin

Zorionak eta Eguberri On!



Kirola ◊

PASABAN ETA ALONSO, KIROLARI ONENAK

Tolosako Udalak urteko kirolari onenak omendu zituen herenegun eginitako Kirol Galan. Herriko eragile desberdinek aukeratuta, Edurne Pasaban eta Xabi Alonso dira aurtengo aipamen nagusia jaso dutenak. Beste hainbat aipamen ere banatu zituzten, hala nola, etorkizuneko kirolari eta 2010eko kirolari aipagarrienei. Aipamen berezia jaso zutenen artean, Juan Inazio Elosa nabarmendu daiteke, zesta punta eskolako sortzailea, eta eskolako laguntzailea. I.T.

Urteko azken Azoka Berezia, Gabonetakoa, bihar

Plaza Zaharrean, Trianguloan eta San Frantziskon jarriko dituzte postuak; odolki lehiaketa ere izango da

Iñigo Terradillos Gastronomía

Gabonetako Azoka Berezia izango da bihar goizean. Urteko azkena eta garrantzitsuenetakoa den honek hiru gunek hartuko ditu produktuen erakuslehoi lana egiteko: San Frantzisko pasealekua,

Trianguloa plaza eta plaza Zaharra. Horiei, larunbateroko merkaturak erabiltzen direnak gehituko zaizkie: Zerkausia, Berdura plaza eta Euskal Herria plaza.

Jakiak, artisautza, animaliak... San Frantzisko pasealekuan, eraguztietako jakiak egongo dira salgai. Baina, jakiez gain, artisauek landutako lanak ere izango dira Artxiiboaren aurrean jarritako postuetan.

Trianguloan, barazki eta fruta ugari izango da. Ezti, ahatekiak, gazta, txokolata edota ardoa ere

erosteko aukera izango da. Bestalde, Tolosako dendariak ere kalera aterako dituzte beraien produktuak.

San Blas Elkartearen laguntzarekin, Odolki Lehiaketa egingo dute Trianguloa plazan. 08:00etan hasiko dira parte-hartzaileak odolkiak sutan jarri, eta 13:00etan jakingo da irabazlearen izena. Bitartean, goizean zehar, pasa den urteko irabazlearen odolkiak dastatzeko aukera izango du nahi duen orok. 16 harategik eman dute izena, eta parte hartu nahi duenak 943 69 75 21

zenbakira deitu beharko du, gaurko 13:00 baino lehen.

Bestalde, plaza Zaharrean euskal arrazako animalien erakusketak egongo da, eta Bidaniatik etorritako euskal txerriaren produktuak eskuratu ahaliko dira.


Konpota hiru gunetan

Tolosa Gourmet-eko kide den Fronton jatetxeak prestatuta, konpota banatuko diete asteroko merkatuan egoten diren saltzaileei, «urte guztian egiten duten lan hori nolabait egun berezi honetan eskertu asmoz». Zerka-



Postu ugari jarriko dituzte. R. CALVO

sian, Berdura plazan eta Euskal Herria plazan banatuko dute. tolosa@hitza.info



saridunak

① Sarrera pareia

◦ Alazne Ruiz (Anoeta)

Oreka TXek eskainiko duen
Nomadak TX
ikuskizunerako



Abenduak 18, Larunbata ◦ 22:00etan Villabonako Olaederra kiroldegian

② Sarrera pareia

◦ Antton Gabellanes (Irura)

Orfeoiak eskainiko duen
Eguberri
kontzerturako



Abenduak 22, Asteazkena ◦ 20:30ean Tolosako Leidorren

③ Sarrera pareia

◦ Angel Oruesagasti (Amezketza)

Poxpolo eta **konpainiak**
eskainiko duten
Segi Jotzen jaialdirako



Abenduak 26, Igandea ◦ 17:00etan Tolosako Leidorren

④ Sarrera pareia

◦ Nekane Galparsoro (Tolosa)

Eguberriak
Bertso Jaialdia

Abenduak 26, Igandea
17:30ean Ibarra kiroldegian



Saridunak sarrerak leihatilan bertan izango dituzue

harpidedunen
TXOKOA hitza



Ibarra, abenduaren 26an egingo den bertso jaialdiko kartela. HITZA

Izen handiko bertsolariak elkartuko dira hilaren 26an

Azken urteetako ibilbideari jarraituz, Ibarra bertso jaialdia antolatu dute; sarrerak salgai aurkitzen dira

Erredakzioa Ibarra

Maialen Lujanbio, Jon Maia, Susirai Colina, Amaia Agirre, Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso Ibarra egongo dira abenduaren 26an, igandean.

Belabieta kiroldegian bertso jaialdia antolatu dute herritarrek eta bertara «puntu puntako sei artista handi» gonbidatu dituzte. Jadanik sarrerak salgai aurkitzen dira. Aurrez erosten dutenek 8 euro ordaindu beharko dute eta egunean bertan, kiroldegian, 10 eurotan jarriko dituzte salgai.

Auzolanean

Ibarra hainbat eragile aurkitzen dira abenduaren 26ko bertso jaialdiaren atzean: «Bakoitzak bere ardurak hartu ditu eta auzolanean antolatu dugu bertso saioa; lanak banatuz eta dagokionari dagokiona eginaz».

↓ Sarrerak salgai

8 EUROTAN

- **Ibarra.** Zubiaurre, Atari, Danon Txokoa eta Lurdes liburudenda.
- **Anoeta.** Itzuli tabernan.
- **Villbona.** Iratzar tabernan.
- **Leizta.** Torrean.
- **Alegia.** Ixkiña tabernan.

- **Tolosa.** Denak eta Raku tabernetan.
- **Beasain.** Arrano tabernan.

10 EUROTAN

- **Ibarra.** Abenduaren 26an, egunean bertan, kiroldegian sarrerak erosteko aukera egongo da.

Eneko Aritzaren Lagunak kultur elkartea eta Pototxotx Bertso Eskolaren bidez, kiroldegia eta bertsolariak lotu dituzte. Azken honek jarriko ditugainera, bertso saioa gaiak. Bi talde hauei laguntzen, Bartola jai alternatiboen batzordea eta Ibarra Gazte Asanblada aritu dira. Azken honen adibidez, eszenatokia utziko du. Horrez gain, egunean bertan esku guztiak ongietorriak izango direla azaldu dute antolatzaileek.

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariak bestalde, bertso jaialdirako bi sarrera zozketatuko ditu bere harpidedunen artean. Horretarako 902 82 02 40 telefono zenbakira deitu beharko da.

«**Kostu altua**» eta «**bertso zaleen laguntza beharra**» Abenduaren amaierako bertso saioa ohitura bilakatzen ari da Ibarra. Aurtengoa hirugarrena izango da, baina «ekonomikoki kostu handiko ekitaldia» dela azaldu dute antolatzaileek. «Urte tik urtera zailagoa da, izan ere, kiroldegian alokairua eta aseguru, berogailuak, bertsolariak, inprenta eta abar gure poltsikotik ordaindu behar izaten ditugu. Guztira ia 2.000 euro. Horri buelta emateko dugun diru iturri bakarra sarrerak dira. Ondorioz, Ibarra jaialdi honek aurrera jarrai dezan, bertsozaleen laguntza ezinbestekoa da».

→ Laburrak

Senidetzeak fruituak ematen jarraitzen du

IBARRA » Bai Euskal Herriari herri ekimenak azaldu duenez, Ibarra eta Lizarraren arteko harremanak aurrera jarraitzen du Euskal Herria Eguneetik hara-tago. Horren adibide, asteburu honetan Alurr dantza taldeak Lizarran emango duen saioa izango da. Bertako Larraintzar dantza taldeak Alurren *Oinazez* ikuskizunaren emanaldia antolatu du hilaren 18an, Golem zinemetan, 20:30ean. Horrez gain, Ibarra eragileek lizarrak hilaren 26an Ibarra egingo den bertso jaialdi gonbidatu dituzte. Saioaren aurretik gainera, bazkaria egingo dute herriko elkarteren batean.

Gipuzkoako urteko kirolaririk onena, Pasaban

TOLOSA » Ederne Pasaban mendigoizaleak sariak jasotzen jarraitzen du. Orain, Gipuzkoako urteko kirolarik onena izandatu dute. Diputazioak ematen dituen Gipuzkoa Kirola Sariak hilaren 22an banatuko dira eta tolosarrak bertan jasoko du dagokion saria, munduko hamalau mendirik altuenak igo dituelako.

Gazte jaialdia gaur 19:00etan Leidorren

TOLOSA » Herriko ikastetxeetako Batxilergo II. mailako ikasle-en artean Gazte Jaialdia antolatu dute gaur Leidor aretoan, 19:00etan. Gazte jaialdiak erki-dego mailan antolatu den Beldur Barik ekimenarekin bat egin du eta Leidorren ikus-entzunezko emanaldiak, Beldur Barik lehiaketako sari banaketak eta zuzeneko emanaldiak egongo dira. Sarrerak 4 euro balio du.

Bihar, herri galdetegiaren inguruko topaketa

AMEZKETA » Aurreko larunbaterako, herri galdetegiaren ondorioak hausnartzeko deialdia egin zuten, eta 20 bat lagun-ek hartu zuten parte hausnarketan eta eztabaidan, baina denbora zela eta, ezin izan zuten amaitu eztabaida. Beraz, larunbat honetan jarraituko dute, 11:00etan, balioanizdun gelan.

Hilaren 20an, batzordeen bilera pleno aretoan

AMEZKETA » Hirigintza, kultura eta ingurumena batzordeen bilera hilaren 20an, astelehenean izango da udaletxeko pleno aretoan, 20:30ean. Herritarrak bertara gonbidatu ditu udalak.

Sokatira txapelketaren azken jardunaldia

IBARRA » Euskal Herriko sokatira txapelketaren jardunaldia jokatu da bihar Berriozarren, 17:00etan. Neska 250 kilotan lehiatuko dira eta mutilek 300 kilo finala jokatu dute. Ibarra lau talde egongo dira bertan.

Goizeko dantzaren harira, bilera hilaren 20an

ANOETA » Dantza-Soka Eguna prestatzeko bilera pare bat egin dira orain arte, eta bertan aldaketa batzuk egitea proposatu da, besteak beste, dantza goizean soilik egitea, eta arratsaldean bazkaldu ondoren, kalejira denon artean burutzea. Horren harira, eta goizeko dantza nola moldatu erabakitzeko, bilera egingo dute abenduaren 20an, astelehenean, 18:30ean udaletxean.



Presoen eskubideen alde kalera irteteko deia egin dute

‘Euskal jendarteari, nahikoa delako; egin dezagun urratsa’ manifestuarekin bat egin dute Aiztondoko kideek

Erredakzioa Villabona

Pasa den astean, Aiztondoko bailarako Etxerateko kideak Villabonako Bear Zana pilotalekuan elkartu ziren. Beste urte batez, euskal presoen Euskal Herriaratzeko eta euren eskubideak aldarrikatzeko deitu dituzten mobilizazioen berri eman zuten. Era berean, dagoeneko 2.000 atxikimendutik

gora jaso dituen *Euskal jendarteari, nahikoa delako; egin dezagun urratsa* manifestua irakurri eta honekin bat egin zuen Aiztondoko bailarako Etxeratek. Izan ere «mendeetan auzolana, hizkuntza, duintasuna, konpromisoa, el-

↓ **Datua**

11 preso

■ **Aiztondoko bailara.** Villabonako bederatzik eta Zizurkilgo bi preso daude Espainiar eta Frantziar Estatuetako espetxeetan sakabanatuta.

kartasuna, lana eta sufrimendua-ren bitartez landu dugun herriaren parte gara. Itxaropenaren aroan sartzea desiratzen duen herria da gurea», esan zuten. «Bihoitzean mina dugu ordea, gure senide, lagun eta herrikide diren euskal preso politikoei pairatzen duten eskubide urraketa-aren aurrean. Euskal jendarteak eta nazioarteko hainbat erakundek hamarnaka aldiz deitoratu dute krudelkeria oinarri duen eta sufrikarioa besterik ez dakarren espetxe politika hau», gaineratu zuten. «Gure senide, lagun eta herrikide diren euskal presoen eskubideekin nahi erara jolasten dute», nabarmendu zuten.



Villabonako Bear Zana pilotalekuan egin zuten deialdia Aiztondoko bailarako guraso, senitarteko eta lagunek. E. MAIZ

Honekin batera, «gaixotasun larriak dituzten presoak gaitibu mantentzea; bizitza osoke espetxe zigorra; 3/4ak beteta dituzten presoak kartzelan mantentzea; isolamendua; bakartzea; aurrez aurreko bisitetan jasan beharreko tratu umiliagarria, elkartasunaren kriminalizazioa eta abar» aipatu zituzten, frantziar zein espainiar Estatuek aplikatzen dituzten sakabanaketa politiken inguruan hitz egiterakoan.

Zalantzarik gabe, «bereziki eraikitako» kartzela sistema «an-kerra» dela ere nabarmendu nahi izan zuten. «Gizabanakoa suntsitu eta euskal jendartea bete-betean kolpatzeko ahalegina da. Zitalkeria andana hori ote herri bat justiziako bakera eraman dezakeen bidea? Euskal Herriaren gehiengo zabalak ezetz dio. Horregatik, nahikoa dela esaten dugu», azpimarratu zuten.

Euskal Herria aro berri baten atarian dagoela sinesten dute eta lehen premia larritzkoa izandakoa, orain are gehiago dela gogorazti zuten. «Gure senideen zein gure egoeran, berehalako aldaketak eragitea ezinbestekoa iruditzen zaigu: Sakabanaketarekin amaitzea, gaixotasun larriak dituztenen kaleratzea, bizi guztiko kartzela zigorra bertan behera geratzea eta espetxe barruan ematen diren hainbat eskubide urraketaekin bukatzea» eskatu zuten.

Orain arte egin duten gisara, «euskal preso politikoak eta euren senideen bizitzak zigorgabetasun osoz, egunero, erruleta zital eta krudelekan ezartzen dituen espetxe politika horrekin amaitu behar dela» aldarrikatu zuten ondoren, «edozein demokraziaren oinarri-oinarritzko betebeharrak

liratekeenak baino ez ditugu eskatzen», gaineratzeko. «Justiziako eta bakezko aroa beharko lukeenari arnasa emango dioten» neurriak nahi dituztela aldarrikatu zuten. Eta alderantzizkoak, egoera honek alegia, «balizko aro berri bati arnasa ukatzen» diola uste dute.

Hortaz, eta berriz ere, herritarrengana luzatuz, «espetxe politika honen sufrimendu gain-zama buka dadin laguntza eskatzen dizugu». Herritar orori dagokigun betebeharra dela uste dutelako «guztion esku dago egoera hau aldatzea. Euskal preso politikoen eskubideen defentsa, herritar ororen eskubideen defentsa ere bada. Espetxe politika honen amaierak, aro berri baten hasiera ekar dezan. Demokrazia nahi dugulako. Nahikoa delako. Eta herri honek sufrimenduzko eta bidegabekeriako aro hau atzean utzi eta bere bidean aurrera egin nahi duelako» azpimarratu zuten.

«Nahikoa delako»

Herritarrei, hiru proposamen luzatu zizkieten: «hilerio zure herrian, hileko azken ostiralean, 30 minutu eskaintzea egiten diren elkarretaratzetan parte hartuz. Hilaren 31n, Urteazahar egunez, 19:00etan Villabonako Errebote plazatik abiatuta burutuko den manifestazioan parte hartzea eta era berean, herritarrek beronen deitzaile bihurtzea».

Eta hirugarrenik, datorren urteko urtarillaren 8an, larunbatez, *Euskal Presoak Euskal Herriara eskubide guztiekin, egin dezagun urratsa* lelopean egingo den manifestazio nazionallean parte hartzea joateko deia luzatu zuten, «inoiz baino garrantzitsuago delako».

↓ Hiru proposamen

«GUZTION ESKU DAGOELAKO»

- **Azken ostiralak.** Hileko azken ostiralean herrietan egiten diren elkarretaratzetan parte hartzeko deia. Hilean behin egiten den aldarrikapen honi, 30 minutu eskaintzea.
- **Abenduak 31.** 19:00etan Vi-

llabonako Errebote plazatik abiatuta burutuko den manifestazioan parte hartzeko deia eta bide batez, beronen deitzaile bihurtzea.

- **Urtarrilak 8.** *Euskal Presoak Euskal Herriara eskubide guztiekin, egin dezagun urratsa* lelopean, Bilbon izango den manifestazio nazionalera joatea deia.



gibon hakulani beindile zizvud opari onanekin
zizvud opari onanekin

‘Amerikanuak’ dokumentala Leidorren

Kultur arteko topaketen baitan, bihar arratsaldeko 19:30ean eskainiko da dokumentala

Agurtzane Belaunzarán Kultura

«Amerikanuak» dokumentala, Donostiako zinemaldian estreinatu ostean, Euskal Herriko zinemetara iritsi da. Bihar, arratsaldeko 19:30ean Leidor aretoan ikusteko aukera izango da, Mundu bat Tolosaldean kultura arteko topaketen baitan.

50.hamarkadan Euskal Herri-

tik, Estatu Batuetara joandako artzainek, herritik urrun, bizi duten bizimodua kontatzen du. Nevadako mendi elurtuetan bizitutako esperientziak, gogorrak gehienak, aipatzen dituzte protagonistek, beti ironia eta umorea-rekin. Herrimina eta nostalgiki ere badute tokia dokumentalean.

Etxetik eramandako euskara mantendu dute urteetan eta euskalki ugari biltzen ditu dokumentalak. Elkoko Euskal taberna dute bilgune nagusi; mus partidak jokatzeko edota bertsoetan eta kantuan aritzeko.

Villabonan abenduaren 25an eta 26an eskainiko da Gurea aretoan.



Euskal Herriko artzainak Elkoko euskal tabernaren atarian. ZIGOR ETXEBARRIA

Zigor Etxebarria • ‘Amerikanuak’ dokumentaleko kidea

«Estatu Batuetako euskal diasporaren erretratua da»

A.BELAUNZARAN Zinea

Nevadako mendi elurtuetan bildutako irudi eta testigantzekin osatu dute *Amerikanuak* dokumentala. Musika Audience talde gernikarrak egin du. Lagun artean, «auzolanean» egindako lana hauxe.

Etorraren Nazioarteko egunean dardokumentala Tolosara.

Gurera etorri direnen eta gure herritik joan zirenei egindako omenaldia da dokumentala. Jendeak ez baitu bere herria gustuz uzten. Diaspora handia dugun herria gara, ahaztu dugu. Garai batean,

euskal baserrietan, aho asko eta jan gutxi zegoen eta batzuk bizimodua herritik kanpora bilatu zuten. Migratu dugun herria gara. Orain, bizitza maila on bat daukagunean, etorkinen presentzia begi txarrez ikusten dugu. Ikusi besterik ez dago, gobernuek hartzen dituzten erregulazio neurriak edota arrazakeriak eman duen gorakada.

Dokumentalak artzainen bizimodua kontatzen du, umoretsu batzuetan, nostalgiaz besteetan.

Bere herria inork gutxi ez uzten du gustuz. 50.hamarkadan, Euskal Herriko Estatu Batuetara iristean,

bizimodu gogorra tokatu zitzaizkien. Denboraldi luzeak egiten zituzten mendian artzain. Bere buruaz beste ere egin duenik ba omen da. Gure protagonistek hala ere, umoretsu kontatzen dute bizitakoa. Baserritarrak dira, gogorrak, penak ere umorez kontatzen dituztenak.

Zergatik euskal artzainak?

Estatu Batuetan euskal diasporarekin lan egiteko aukera izan nuen eta gai interesgarria iruditu zitzaizkien. Gernikara bueltan lagun artean hitz egin eta lantaldeko baten aitonak ere 15 urte egin zituen han. Istoria polita iruditu

zitzaigun, azkeneko euskal artzainak dira gainera hauek.

**Euskaraz mintzo dira protagonistak eta dokumentala erdaraz eta ingelesez dago azpiztitulatu. Euskal Herri-
tik haratago jaoteko asmoa al du-
zue?**

Bizkaiko, Nafarroako eta Iparraldeko baserrietik emandako euskara egiten dute. Dokumentalaren ederrena horixe da, euskalki ezberdinak entzutea. Bertan euskara ikasitakoak ere badira eta euskalki berria dute, guk euskara gringoa deitzen genion. Erdaraz eta ingelesez azpiztitulatu da berriz, mundura zabaltzeko bidea da. Etorkinen gaia ez baita lokalka. *Amerikanuak* euskal artzainen historia da, baina inmigrazioak sortzen dituen sentimenduak, nostalgia, herrimina... unibertsalak dira.

Nolako esperientzia izan zen?

Urtarrila eta otsaila egin genituen han. Lehen bi asteak, kame-
rarik hartu gabe, beraiek ezagutu-
tuz. Gero hasi zen grabaketa, gi-

doirik gabe dena, inprobisatu egiten genuen; Beraien arteko elkar-
rriketak grabatu, egunerokotasu-
nuko irudiak bilduz; Elkoko euskal diasporaren erretratua da dokumentala.

**Gernikako lagun talde batek produ-
zitu duzue lana. Musika berriz, Au-
dience talde gernikarrak sortu du, Pi-
perrak bakarrik ez dira Gernikakoak!**

Auzolanean egindako lana da dokumentala. Elkora lau lagun joan ginen eta muntaketa lanean hasi ginenean, Audiencek dokumentalerako propio egindako musika egin zigun. Sekuentzia bakoitzaren neurria egindako musika da. Estiloa ere ez da kasualitatea, country musikak dokumentala ongi borobiltzen baitu.

**Donostiako Zinemaldian estreinatu-
zen dokumentala. Nolako erantzun-
a izan zuen?**

Oso harrera ona izan zuen, hiru emanaldietan aretoak lepo bete baitziren. Orain zinema aretoetan ikusteko aukera dago.

• tolosa@hitza.info

Hilberriak



MIGUEL ZUMARRAGA AZPIAZU

- Goian bego -

Atzo hil zen, 73 urte zituela,
Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

Emaztea: Margari Luzuriaga; seme-alabak: Mikel eta Bakartxo; ezkon seme-alabak: Aloña eta Juan Luis; bilobak: Izargi, Jare; eta Hostaitza, Maddi, Saioa; anai-arrebak: Juanita eta Antonio (†), Nekane (Merzedaria), Joxe M^a (†), Javier (†) eta Rosi, Iñaki (†) (Pasiotarra); ezkon anai-arrebak: Pilar eta Julian (†), Juli eta Joaquin; osaba-izebak, ilobak, lehengusuek eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte! GAUR, OSTIRALA, arratsaldeko SEIETAN, San Andres Parroki Elizan egingo den hileta elizkizunerako. Eskerrik asko guztioi aldeaz aurretik.

ORMAIZTEGI-DONOSTIA, 2010eko abenduaren 17a

Oharra: Gorpua Beasaingo Goierrri Beilatokian egongo da, 12:30ak arte

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



**HILETAREN
BALIOA
Txina Inperiala**

Funeraria Vascongada ere pertsona bakoitzak bere neumiko hileta izan behar duela. Horregatik, alor horietan lider garenak, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Bereskurazina da galdutakoa.
baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com

BACARJAK PARTIZEN www.tokosukhibhita.inagahaburak.com / 943-853635 telefontarbakira



ETXEBIZITZA GIDA

www.grupoeibar.com
943 316611

ERAKITZEN ARI DIREN ETXEBIZITZAK

ANETA, Loastzepe



1. FASEA SALDUA
2. FASEA SALDUA
Terraza eta trastelekuak duten etxebizitzak.



3. LOGELA 209.000 EUROTU GORA
2. LOGELAKO OUPLOA 204.000 €
2. LOGELA, TERRAZA ETA TRASTELEKUEKIN 183.000 €
Reserba eta polikrokoegiaren onak. Tren geltoki eta 10-16tik gertu.

BERGARA, Lorentxokoa



1, 2, 3 eta 4 logela
47.200 eurotik gora.



KANPOKO ALDERA EMATEN DUTEN ETA TERRAZA DUTEN ETXEBIZITZAK
KALITATE MEMORIA BIKAINA.
2. logela 180.900 eurotik gora, 3. logela 205.400 eurotik gora.
Terraza handia duten etxebizitzak eta trastelekuak duten etxebizitzak.

ONOSTIA, Prim 32



Dusonbieran erdialdean, berria eta aukera bakarrekoa.



ERAKIN BEREZIAREN BERRITZE OSOA,
1, 2 eta 3 logela, 455.000 eurotik gora.
Aukerak luakotzeko eta erabaki, zure etxebizitzak berdintzeko izan daiteke.

ZALDIBA, Iparagune Auzo



2. fasearen berehalako merkaturatzea.



1. fasea, sarrerako etxebizitzak:
3 logela terraza eta trastelekuarekin (2. solairuan) 216.800 € (sarrerakoa)
Terraza handia 3 logela etxek, trasteleku eta garapenak 247.600 € (sarrerakoa)
3 logela terraza handia duplex, trasteleku eta garapenak 257.400 €.

ELGOIBAR, Urteburu



2. fasearen berehalako merkaturatzea.



1. fasea, sarrerako etxebizitzak:
2 logela etxebizitzak (5. solairuan) 287.000 € (sarrerakoa)
3 logela etxebizitzak (5. solairuan) 289.500 € (sarrerakoa)
3 logela terraza handia etxek, duplex, sarrerak 243.000 € (sarrerakoa)
3 logela etxek duplex, sarrerak 257.000 € (sarrerakoa)
Sarrerak inguruko lekua, garaje eta terraza dute etxebizitzak 270.500 eurotik gora.

IRUN, Canal de Santiago



3 logela, 80 m² 4-11m²ko terraza, 3. solairua.
370.000 €.




Kolapen hobeezina: Irunen erdialdean, Santiagoko kanaleren barnean, onakentzatko sarrerak diren pasetu inguruetan, leku irekia eta egutziak... eta kalitate memoria bikaina.
2, 3 eta 4 logelako etxebizitzak.

ORIO, Pakt On



1 eta 2 logela
203.000 eurotik gora.



2 logela 1. solairuan, 255.500 €.
2 logela 3. solairuan 261.500 €.
Hegokidera begira bukaldeak erabat hornituak, domotika...

ORIO, Erribera Munita



3 logela garaje eta trastelekuarekin
306.000 eurotik gora.



Basora eta basoeterrera begira, basoak eta polikrokoegiaren onak.
Zerbitzu, portak eta hondartzatik gertu.
Bukalde alkatuek, hornimezuak, zurgari mizea kanpoko aldea, basurak zurgari aukerak, domotika...

HILABETEKO ESKEINTZA...

...AZARO OSGAN ZEHAR



DEBA, ALAMEDAREN PAREAN,
HONDARTZAREN ONDOAN

2 LOGELAKO ETXEBIZITZA, 3. SOLAIRUAN
330.000 € GARAJEA BARNE

BUKATU DIREN ETXEBIZITZAK

DEBA, Orotzalea Etxea
2.B - Logela 1 - 240.405 €
3.C - 2 logela - 330.000 €
ELGOIBAR, Santa Clara.
1.C - 2 logela - 240.404 €
1.D - 2 logela - 192.000 €
B. Atxoa - 2 logela - 278.485 €
EIBAR, Erdialdean
18 etxebizitzak hasen 270.460 eurotik gora.
4 etxebizitzak Torbio Etxebiztan 368.000 eurotik gora.
6 etxebizitzak Bideberritan 173.085 eurotik gora.
6 etxebizitzak Galtzeretan 265.500 eurotik gora.
ZUMARRAGA, Iparagune.
Atxoa duplex 80m² - 331.754 €.

INDUSTRIALAK

Industriaiguneen alokairua eta salmenta
Bergara, Elgoibar eta Elgetan

ELGOIBAR, 943 748002 San Francisco 44. B,
-IRUN, 659 940582 C/ José R. Aguirre 1.B, -ORIO, 943 133540 C/ Alta Leizund 21. B, -ZALDIBA, 943 887143 Santa Fe 41. B, -BILBAO, 819 274183 -BERMEO, 689 236838 -ERMUA, 943 170715



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza. Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: www.tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika. **Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean_publici@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibarra@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**



eta Tolosaldea
eta Leitzaldea
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Farmaziak

GAUR

- **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria kalea, 3. Telefono zenbakia: 943 67 09 15.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. Telefono zenbakia: 112.

BIHAR

- **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. Telefono zenbakia: 943 65 46 10.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

ETZI

- **Tolosa.** Bronte, C.I. Korreo kalea, 20. Telefono zenbakia: 943 67 60 13.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

ASTELEHENA

- **Tolosa.** Azpiroz, L. Amaroitz auzoa, 9. Telefono zenbakia: 943 67 51 18.
- **Leitza.** Campos M.Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak



Zorionak Ana Belen!

Askatasun taupadak egusenti berriaren bila.
Euskal presoak Euskal Herrira.



Urte askoan!

Oihan Calahorra Murua (Tolosa).
Bihar 7 urte. Zorionak familiaren partetik.

urtebetetzek
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzek...

agurrak



Egin zure erosketak Mugarren

MUGAR
MODA INTIMA

Nafarroa etorb. 16 • Tel.: 943 65 56 85
Pablo Gorosabel, 28 • Tel.: 943 65 40 37
TOLOSA



Opari praktikoak Mugarren

Bihar egingo den Tolosako gabonetako azoka berezlan Izango gara, etorri gure produktuak erosferal

1924
ECEIZA
T O L O S A

**TEILAK ETA
ZIGARROTXOAK**



Pablo Gorosabel, 34 • Tel.: 943 655161 • TOLOSA

posta elektronikoa: pasteceiza@euskalnet.net

San Frantzisko, 8 • Tel.: 943 651916 • TOLOSA